Sacamantecas nuen aita

Aitor Arana | (Legazpi, 1963) Hamazazpi urte zituenean hasi zen idazten eta ordudanik ia 200 liburu sortu eta itzuli ditu. Idazlea eta itzultzailea da lanbidez, eta zaletasunez hiztegigilea eta poliglota. Euskaraz, gaztelaniaz, esperantoz eta kaloeraz itzultzen du.
Jaso dituen saririk garrantzitsuenak Liburu Gaztea Saria (*Amodioaren gazi-gozoak* lanarekin) eta Kutxa Eleberri Saria (*Oscar eta Sebastian* lanarekin) dira.
Haranaga Liburuak argitaletxearen zuzendaria da.

Aitor Arana

Sacamantecas nuen aita

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2012ko maiatza

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Aitor Aranak OBRARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

ISBN
978-84-15313-18-2
LEGE GORDAILUA
NA. 848-2012

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

ARGAZKIA
© lc8neal

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
Graficas Lizarra
Tafallako errepidea 1. Km.
31132 Villatuerta - Nafarroa

BAT

Gasteiz iparraldeko Gamarra herritxoa.
1870eko apirila

DEBEKATUTA ZEGOEN.

Gezurra zirudien, baina hainbat urte ziren agintariek makila-jokoa debekatu zutela. Jendearen esanetan, ordea, joko hura herri-kirola zen, oso antzinatik egiten zena. Baina orain udaltzainak makila-jokoan egiten zutenen atzetik zebiltzan Gasteizen. Eta nekazari giroko herrietan –ia denetan, beraz– guardia zibilak ziren Araban jokalariei jokoan egitea galarazten zebiltzanak.

Makila-jokoaren zaleek, hortaz, ezkutuan jokatu beste erremediorik ez zuten. Oraingoan Gamarra herrian jokatzea erabaki zen, gordean ibiltzea hiriburuan baino errazagoa izango zela pentsatuta, eta albistea zaletuek eta apustuzaleek ahoz aho zabaldu zuten: «Gamarran izango duk, Zadorra bazterrean, Ibaiondoko soro zaharra izeneko horretan, ibaiertzeko makal eta sastraka ugariek ondo ezkutatzen dutelako. Hantxe igande goizean, egunsentian».

Hogeita hamar bat gizon izango ziren –gazte, heldu eta zahar– zehaztutako lekuan huts egin gabe elkartu zirenak. Bakar batzuek, jokalariek, hurritz-makila zoragarriak zeuzkaten; zuzenak eta tinkoak, metro eta erdi luze bai erraz. Bertara joandako beste gizonezkoak jokoa ikustera eta hartaz gozatzera etorritakoak ziren, apustuzaleak. Batzuek apustu latzak egingo zituzten beren faboritoen alde. Nerabe morroiren bat edo beste ere bazegoen haien artean, bere etxeko nagusiarekin etorrita.

Jokalariak, ibaiertzean eta jendez inguraturik, beroketa-ariketak egiten ari ziren jokoan hasi aurretik. Egunsentia hotza zen eta ez zebilkien urrun erreka-lainoa; eguzkiaren lehen printzek hura urratzerako, jokoa aspaldi amaituta egongo zen. Hartan ari zirela, jokalari batek bizkarrean luzetaka jarri zuen bere makila ederra, giltzurrunen gainean ukondo-barrenez hantxe eusten ziola, eta jira-biraka hasi zen ziba bizia balitz bezala. Halako batean, bi besoak batera zuzenduz makila askatu, eta han joan zen hura airean aurrera, urrun.

—Ekarridak hori, Anton –agindu zion jokalariak buru-keinu batekin batera, ikusleen arteko gazteenari, hamazazpi-hemezortzi urteko nerabe bati.

Biak ere pozik zeuden jokalariak egindako jaurtiketaz, eta han joan zen gaztea lasterka sastraka artean bilatzera, ehiza-txakurra jabearen harrapakinaren bila joaten den bezala.

Baina makila-jokoa ez zen makilak jaurtitzea. Jaurtiketa hura jokalariaren beroketa-ariketatxo bat

baino ez zen izan. Begiratu batean, egiazko jokalariak sei zirela zirudien, eta gainerako guztiak ikusleak eta apustuzaleak. Gizon heldu bat, jende artean, apustuak apuntatzen eta dirua batzen zebilen.

Azkenean, bi makiladun aurrez aurre jarri ziren egoki iritzi zioten lekuan. Praka luze urdinak, espartinak eta alkandora zuria besterik ez zeukaten jantzita.

—Aupa, mutilak! –oihu egin zuen norbaitek. Juan Diaz de Garaio zen, Zadorra ibaira jokoa ikusteko irrikitan etorria.

Jokalariak biribilean mugitzen hasi ziren, elkarri begira. Bata gaztea zen, eta heldua bestea. Bietan irabazten zuena hurrengo bikoteko jokalari irabazlearen aurka borrokatuko zen, eta sei jokalariek borroka egin ondoren, geratuko zen azken bikotean irabazten zuena, huraxe izango zen jokaldi osoaren irabazlea. Txapelduna, beraz.

Gazteak makila bat-batean goratu zuen eta, konturatu zenerako, egundoko kolpea eman zion bere aurkariari belarrian, hura buruaren kontra basati zuzenduta. Baina heldua ez zen kexatu eta, berehala erreakzionatuz, makilaz urdailean jo zuen gaztea, eta hura aurrera makurtu zen. Gaizki egina, jarrera bikaina baitzen hura buruan eta belarrietan ezker-eskuin/ezker-eskuin jotzeko makilaka, aurrekoaren mendeku gisa.

—A, aa, aaa! –oihu egin zuen gazteak, belarriak gorri-gorri eginda. Haiek igurtzi nahi zituen, mina pixka bat arindu alde, baina hori egiteko makila bota

beharko zuen eta, orduan, jokoz kanpo geratuko zen. Makilari bi eskuez beti ongi eutsi beharra zegoen.

Jokoak aurrera jarraitu zuen. Bi partaideek egur ugari jaso eta gero, gazteena errenditu egin zen aurkariak belaun-belaunean makila-kolpe gotorra eman zionean. Herrenka atera zen azkenean, gorputza ubelez beteta. Ederrak entzun beharko zituen etxean.

Orduan beste bikote batek ekin zion makila-jokoari eta, esan bezala, bi haien arteko txapeldunak, lehen bikote txapeldunaren aurka borrokatu beharko zuen, biak aski jipoituta zeudenean, hau da, egoera berean zeudenean.

—Gaztexeagoa banintz! –esan zion Juanek ondoan zeukan herritarrari–. Gaurko diru dena neuk irabaziko nikek.

—Tira, tira, Juan. Ez ametsik egin –erantzun zion kideak, hura ere berrogeita hamar urte ingurukoa–. Ahaztu al zaik hik gaztetan jardun huela jokoan eta makilakada galantak besterik ez huela irabazi?

—Ni? Bai zera! –ukatu zuen Juanek–. Ez nauk ni gogoan duan hori, seguru.

Mintzakideak irribarre egin zion, barkabera.

Danga! Galanta hartu zuen hirugarren bikoteko jokalarietako batek. Aurkariak trebetasun handiz kolpe bikoitz batez bi eskuetan jo zuenez, makila lurrera bota beste erremediorik ez zuen izan. Jokoz kanpo.

Ibaian ehun bat metro beherago, Gamarrako herritar bat zaindari lana egiten ari zitzaien jokalari eta jokozaleei. Baita behar ere. Gasteizeko bidean sei

bat guardia zibil ikusi zituen ibai aldera zaldi gainean hurbiltzen. Ziur norbaitek jokalariak salatu zituela. Zaindaria arin bai arin joan zen ibaian gora korrika, jendea ohartaraztera.

—Guardia zibilak! Zaldiz! –oihu egin zuen heldu zenean.

Ez zuen berriz esan beharrik izan.

Bost segundoan han ez zen inongo gizasemeren arrastorik ageri. Makila preziatuak ere beraiekin eraman zituzten. Diruaz ez zen inor kezkatu: geroago tabernaren batean elkartuko ziren interesatuak, eta han egingo zituzten beharrezko banaketak.

Juan Diaz de Garaio sasoiko zegoen, gaztea ez izanagatik. Sastraka artean desagertu zen lehenago mintzatu zitzaion lagunarekin batera.

—Korri! Azkar! –esaten zioten elkarri.

Guardia zibilengandik ahalik eta gehien urruntzeko, hiria oso kanpoaldetik inguratzeari ekin zioten. Errekatxiki izeneko errekaren ondotik igaro ziren eta, nekaturik baina pozik guardiei iskintxo egin zietelako, Judizmendi aldetik sartu ziren Gasteizera. Ikusi zuten lehen tabernan sartu ziren, baxoerdi bat edateko asmoz. Hantxe egon ziren eguzkia zeruan ondo goratu zen arte, makila-jokoa debekatuta ez zegoen garaiaz kontu kontari.

Santa Luzia eta Judizmendi izeneko muinoek sortzen zuten sakantxoan behera zihoan Errekatxiki, ageri-agerian, Gasteizetik poliki urruntzen zela.

Haren ondoko bidean, berrogei urte inguruko emakume bat gora eta behera zebilen, norbaiten zain balego bezala. Etxekoandre nekazaria zen, eta andre nekazariak bezala zegoen jantzita, soineko luzez eta xalez. Emakumeari Gasteizeko inguruetan «Valdegoviesa» deitzen zioten ezizenez.

Garai batean, urte gehiegi ez dela, prostitutei «Maria bideetakoa» deitzen zitzaien, hain zuzen ere Valdegoviesa andrea Errekatxiki ondoko bidean bezala ibiltzen zirelako.

Etxekoandreak egon ohi diren legez, emakumea berez ezkonduta zegoen, baina senarra kartzelan zeukan kondena betetzen eta, egoera hartan, prostituta-lana egitea beste aurrerabiderik ez zeukan.

Bazkalondoko eguzki galdatan, Juan Diaz de Garaio Gasteizetik atera zen –sartu bezala– Judizmendi aldetik, eta Errekatxiki aldeko bidea hartu zuen. Tabernako lagunekin gustura hizketan jardun eta zerbait jan ondoren, larrutan egiteko gogo handia sortu zitzaion. Juan bizitza osoan grinatsua izan zen sexu kontuetan, eta astean hamar saio edo gehiago lasai egiteko gauza diren gizon horietakoa zen. Eguzkitan Errekatxikiko bidean aurrera zihoala, etxera heltzean emaztea ohera nola eramango pentsatzen hasi zen.

—Bazakiat ez duela nahi izango –esan zion bere buruari ahapeka eta madarikazioka, bideko harriren bati ostikoa eman eta errekara bota eta gero.

Juanen hirugarren emazteak ez zuen gogoko bere senarra eta, behin ezkonduz gero, oso gutxitan onartu zion haragiz batzea. Gizona suminduta zegoen,

baina ez horregatik soilik: bigarren emazte izan zuenak ere, ez zion ohea ireki nahi izaten. Egia esan, sexu harreman atseginak, bere lehen emaztearekin baino ez zituen izan Juanek. Baina hori hain aspaldiko kontua zen...

Orduan gizonak bidearen behealdean Valdegoviesa ikusi zuen. Bazekien zertan ari zen. Hura ikustean eta egoeraz jabetzean, gizonezkoek sentitu ohi duten moduan sentitu zuen Juanek sexu-bulkada, zakila berez odoleztatzen zitzaiola. Sentsazio atsegina zen hura, inondik ere.

—Egun on, Valdegoviesa! –agurtu zuen pozik, haren ondora heldu zenean–. Lanean zabiltza ordu honetan?

—Zer erremedio, gizona! –erantzun zion emakumeak neke keinuz–. Zer jango dugu bestela etxean?

—Nik badut, ba, zure premia oraintxe.

—Ez ba pentsatu oso umore oneko nabilenik.

—Baina, bidean zaude ala ez zaude? –kexatu zen Juan.

—Bidean nago, bai... –gizonari begiratu zion. Juan bizpahiru egunean bizarra moztu gabe zegoen, betoker samarra zen, txapela koipetsua zeraman eta, arropak ere, auskalo azken aldiz noiz garbituak ote zituen.

Emakumeak hasperen egin eta ingurura begiratu zuen, bezero hoberik ikusiz gero, harekin joateko aitzakia atera ahal izateko. Baina ez zegoen inor, eta zaila izango zen ordu hartan inor azaltzea, gutxienez, nekazariak arratsaldean soroetara itzultzen hasi arte.

—Bidean nago, bai –errepikatu zuen.

—Goazen hor gertu dagoen Armategi Zahar aldera, eta hiru erreal emango dizkizut.

—Ez, ez, ez, gizon! –hatz bat altxatu zuen emakumeak, ezezko keinua eginez–. Etxe zahar hori soldaduz beteta dago eta oso arriskutsua da. Gainera, hiru erreal gutxiegi da. Bost eman behar dizkidazu.

Juan Diaz de Garaio emakumeari begira geratu zen.

—Hiru nahikoa da! –esan zuen zakar.

—Ezetz ba! Bost direla zerbitzu bakoitzeko –emakumeak irmo.

Garaio beste su mota bat sentitzen hasi zen, hankartekoa ez bezalakoa. Erraietan sortu eta, urdailean korapilo gogorra egin ondoren, burura igotzen zitzaion.

—Lau emango dizkizut, eta goazen berriketa gehiagorik gabe leku egoki bila! –agindu zuen gizonak ia oihuka.

—Ezetz, bost direla, Juan! Eta badakizu ez diodala ezer esango zure emazteari.

Juanek amorru handia sentitu zuen bere buruaz jabetzen, eta hankartean zakila tente, ia min emateko moduan.

Emakumeari basati oldartu zitzaion eta lepotik heldu zion indarrez.

Estutu eta estutu egin zuen ero moduan, Valdegoviesa errukarria erdi itota utzi arte, haren beso nekatuek ezin baitzuten ezer egin zezen amorratu haren aurka.

Juanek lepoa askatu zion.

Emakumea eztulaldi larrian ari zela, laguntza eskatzerik gabe, lurrean botata ia mugitu ezinik, gizon basatiak biluztu egin zuen. Zakar eta errespeturik batere gabe.

Pixka batean haren edertasun biluziari begira egon zen.

Prakak beheratu zituen, zakila aspaldi prest.

Bortxaz hartu zuen emakumea, haren mina areagotuz.

Nahi beste denboran bere grina asetzen jardun ondoren lasaitu zenean, zutitu eta jantzi egin zen.

Ondoren emakumearen arropak hartu eta haren gorputz gainean utzi zituen. Valdegoviesa negar-zotinka ari zen, arropak nola edo hala jantzi nahian, biluztasuna ezkutatzeak gertaturiko lazgarrikeria ezabatuko zuelakoan edo.

Juan basatiak bi eskuetatik heldu zion eta, arrastaka, Errekatxikin sartu zuen.

Emakumea ostikoka hasi zen, errekan zutik jarri nahian.

Gizona, bihotza hotz eta zurrun, belauniko jarri zen haren bular gainean, errekako urak emakumearen aurpegia osorik estaltzeko moduan.

Laster bukatu ziren haren ostikoak eta mugimenduak.

Juan Diaz de Garaiok bere lehen biktima hil zuen. Hartaz jakitun ez balitz bezala, hurrengo pentsatu zuen gauza eguzkitan ibiltzea izan zen, prakak lehenbailehen lehor zekizkion.

Biharamunean sorora lanera zihoan hamazazpi urteko morroi argal batek aurkitu zuen hildakoa. Haren sustoa ez zen makala izan Valdegoviesaren gorpua ur-bazterrean ikusi zuenean.

Egilazko Juan Diaz de Garaiok, haatik, hurrengo egunetan bizimodu guztiz normala egiten jarraitu zuen, patxada ederrean, ezer gertatu ez balitz bezalaxe. Egin berri zuenak ez zion batere kezkarik sortzen eta, beraz, errugabearena egin behar zuenik ere ez zitzaion bururatu.

Inoiz ezin izan zitzaion hilketa hura berari leporatu eta, ezeren frogarik gabe, guardia zibilek eta udaltzainek kasua itxi egin behar izan zuten.

BI

Gasteizko Santa Klara komentua.
1901eko otsaila

ADELA DIAZ DE GARAIO BERROGEITA HAMAIKA urte bete berria zen. Emakume argala zen, oso azal zurikoa eta ile beltzekoa, nahiz eta haren ilearen kolorea lehendik ezagutzen zutenek soilik jakin, aspaldian, hamar urte luzean, moja-jantzi luzez eta buruko estalgarriz jantzita egoten baitzen egun osoan.

Santa Klara komentuko klaustroa inguratzen ari zen, poliki ibiliz, inoiz baino polikiago batere presarik gabe, komentuko liburutegirantz. Elurrik egin ez balu, klaustroa alderik alde zeharkatuko zuen bidea laburtzeko, baina presarik ez izatea eta klaustroa elur mardulak estalita egotea arrazoi onak ziren estalpetik inguruka joateko.

Aurrera zihoala, eskuak jantzipeko amantalaren poltsiko barruan zerbait egiten ari balitz bezala mugitzen zituela ikusten zen. Elurrak estalitako klaustroa zutabe ederrek inguratzen zuten, eta zutabe haiek oinarria horma euskarri baten gainean jarria zuten, altuera ertaineko horma baten gainean.

Adelak horma harixe begiratzen zion txitean-pitean. Klaustro osoa estalpetik inguratzen bukatu eta beste aldeko atetik liburutegira bidean desager zedin baino lehen zerbait gertatuko zela bazekiela zirudien.

Eta zozo beltza, espero bezala, teilatu aldetik hegan jaitsi eta klaustroko iruditeriako zutabeei eusten zien horma gainean pausatu zen.

Emakumea gelditu egin zen. Zozoa aurrez aurre zeukan.

Irribarre gozoa irudikatu zitzaion Adelari, jadanik zahartzen hasita zeuzkan ezpainetan.

Txori beltza begira-begira zegokion emakumeari, zozoek soilik dakiten bezala: hankazabalik, buztana tente eta erdi zabaldurik, eta burua alboka jarrita, ikusteko betaurrekoak behar balitu bezala.

—Hor hago, polit hori? –galdetu zuen Adelak, ahapeka–. Gaur ere zerbait ekarri diat.

Hormara hurbildu zen, leunki. Eskuak amantaletik atera eta ogi-apurrez beterik atera zituen. Otapurrak horma gainean utzi zituen, emeki, txoriagandik metro eskas batera.

«Txirrit!» egin zuen zozoak, Adela irribarretsuaren atseginerako.

Emakumeak berriro sartu zituen eskuak arropa artean ahalik eta janari gehien atera nahian, eta, hura horma gainean utzi ondoren, bi urrats egin zituen atzera. Zozoari begira geratu zen.

Txoria ogia mokoka jaten hasi zenean, bi txolarre azaldu ziren horma gainean; bata emea eta bestea arra, beren lumen koloreek erakusten zutenez.

Adelak bere bideari ekin zion berriz ere, txoriak atzean jan eta jan utzita. Txoriei otapurrak ematea negu oroko zeregina zuen, elur-egun luzeetan gehienbat. Arabako hiriburuan eta haren inguruko baratze eta soroetan asteetan eta asteetan iraun zezakeen elurrak, batere lurmendu gabe, izotzak, laino trinkoak eta are hodei trinkoagoek luzaro babestuta. Egun luze horietan txori askok jotzen zuten hiriburu txikiko etxe inguruetara, epeltasun eta janari bila. Adelari oso erraza zitzaion, goizeko seietako otoitzaldia egin ondoren, egunero bezala goizeko zazpietan gosaldu bitartean, ogi zati bat amantalean sartzea. Beste moja batzuek, gazteenetakoek, gauza bera egiten zuten baratze aldean eta ukuilu aldean.

Jainkoak egindako izakirik ederrenak ziurrenik txoriak zirela buruan zebilkiola, emakumearen irudi ilun ibiltaria klaustroaren beste muturreko ate sendotik desagertu zen.

Korridore luze batean sartu zen. Kapera baten ondotik igaroz, barrenean ikusten zen zurezko eta kristalezko aterantz abiatu zen lehen bezain lasai. Leku hura klaustroa bezain hotza zegoen. Atearen gaineko horma zurian pintura beltzez idatzita «BIBLIOTECA» hitza irakur zitekeen, erdal grafiaz jarrita.

Atea ireki zuenean, gela zabal bat ikusi zuen, erdian mahai zinez luzea zeukana, eta eskuin eta ezker aldeetan lau leiho handi, egunaren argitasuna gelan oparo sartzen uzten zutenak. Paretak apalategiz estalita zeuden, eta apalategiak liburu lodiz bete-

ta. Leihoak kenduta, liburuek estaltzen ez zuten leku bakarrean bi orriko ate bat zegoen.

Adela liburutegiko sarrerako atea ixten ari zen une berean, bi orriko atea norbaitek ireki, eta, lehen begiratuan, elkarren gainean pilatutako liburu batzuk ikusi ziren atetik sartzen. Adela, liburuak zekartzanak pisu handiegia zeramala ikusita, lasterka joan zen ateraino eta liburuen erdia kendu zion komentuko moja klaratar gazte bati. Haren janzkera Adelarena bezalakoa zen.

—Ai! Eskerrik asko –esan zuen moja gazteak.

—Ez da ezer asko! –Adelaren erantzuna, irribarrez.

—Ene! Pisu handia zen gero! –mojak mahai gainean utzi zituen liburuak, eta Adelak gauza bera egin zuen–. Bi joan-etorri ez egiteagatik, ia-ia bide erdian erori naiz.

—Zu Cristina zara, ezta? Liburuzain berria. Matutietan ikusi zaitut; ez zara eseri nigandik urrun. Ni Adela naiz, ez «Sor Adela», ez naiz-eta moja.

—Pozten naiz zu ezagutzeaz, Adela. Bai, atzo iluntzean heldu nintzen Oñatiko Arantzazutik.

Bi emakumeek eskua eman zioten elkarri, aurkezpenaren osagarri.

—Badakizu, nik baino hobeto ziur aski –jarraitu zuen Cristinak–, hirurogei urtez liburutegi honen arduraduna izan den Carmen gaixoa ordezkatzera etorri naizela. Goian bego –esan, eta aitaren egin zuen, haren arimaren alde–. Neguan behintzat egingo dut lan, liburutegian lan egiten denean.

Adelari serio jarri zitzaion aurpegia.

—Bai –erantzun zuen–. Eta zuk badakizu nor naizen benetan, ezta, Cristina? Carmenek edo Ama Nagusiak esango zizuten.

—Carmenek berak, bai. Aspaldi ezagutu nuen Arantzazuko komentuan, nire irakaslea izan baitzen han. Hari esker liburuzaletu nintzen, eta asko ikasi nuen hango udako egonaldietan harekin, eta bertako Aita Kandido liburuzainarekin. Baina, bai, arrazoi duzu. Carmenek benetan nor zaren esan zidan hil baino aste batzuk lehenago.

Adelak baiezko keinua egin zuen buruaz.

—Adela Diaz de Garaio zara –Cristinak erantzuna osatu zuen–, Juan Diaz de Garaio zenaren alaba, hau da, *Sacamantecas* hiltzailearen alaba.

—Eta Carmenek –jarraitu zuen Adelak, aitaz hala entzuteak sortzen zion desatsegina astinduz eta, aldi berean, jakin-min handiz–, hil aurretik agindu berezirik utzi zizun...

—... artikulu bildumaz, esan nahi duzu, noski?

—Hori da: artikulu bildumaz. Carmenek esango zizun bezala, aurreko Ama Nagusiak Carmeni berari, liburuzain arduraduna zenez, bizirik zegoen artean bilduma hori niri inola ere irakurtzen ez uzteko agindu zion. Nik badakit oraingo Ama Nagusiak ez dizula agindu hori berritu, zu hona etorri baino lehen horren berri eman zidalako. Baina ez dakit Carmenek zer agindu ote zizun paper horien gainean.

Cristinak azkar erantzun zuen, emakumea bihotza estutzen zion egoeratik atera nahian.

—Ez zidan ezer agindu, Adela. Poz handiz esan diezazuket artikulu bilduma hori noiznahi hartu era irakur dezakezula.

—Ene! Mila esker! –Adelak ia jauzi txiki bat egin zuen, pozaren pozez, mahaiaren ondoan zutik.

—Egia esan –gehitu zuen Cristinak–. Ez dakit zer dela eta jarri ote zizuten debeku hori.

—Aurreko Ama Nagusiak zioenez, ni neu babesteko hartutako neurria omen zen.

—Tira, hala bada, aurrerantzean zuk zeuk ikusi ahal izango duzu hori, nahi duzunean.

Bi emakumeak elkarri begira geratu ziren irribarretsu.

—Oraintxe nahi dituzu artikuluak? –galdetu zuen Cristinak erretorikoki.

—Bai, mesedez! Pentsa ezazu hamar urte baino gehiago daramadala komentu honetan bizitzen, egunero-egunero jakinda artikulu horiek teilatupe berean zeudela eta ezin nituela irakurri auskalo noiz arte. Horiek irakurri gabe hilko nintzela pentsatu dut askotan!

—Ulertzen dut, bai. Goazen bila –gonbidatu zuen Cristina onak, Adelari eskuaz bere atzetik joateko keinua egiten ziola.

Bi emakumeak bi orriko atetik sartu ziren. Haien begien aurrean komentuko liburutegi handia azaldu zen. Eraikinaren solairu oso bat hartzen zuen berez, eta apalategi-ilara handia zeukan erdian, horma guztiak apalategiz eta leihoen ondoan jarritako lanerako mahaiz beteta edukitzeaz gain.

Klaratarrak apalategi artean abiatu ziren, Adela beti Cristinaren atzetik zihoala. Cristina leiho baten ondoko mahai jakin baten ondoan gelditu zen.

—Hau Carmenen mahai kutuna zen –argitu zuen–. Hamaika ordu egin zuen hemen lanean. Bazenekien liburutegi osoaren katalogo moduko bat egin zuela? Begira, liburu lodi hau da.

Benetan lodia zen liburu gorri bat hartu zuen mahaiaren gaineko lehen apaletik. Ireki egin zuen, ondoko leihotik sartzen zen argitan.

—Zuen abizena Diaz de Garaio denez, D hizkian begiratuko dugu.

Alfabetoaren arabera ordenaturik hantxe azaldu zitzaien bila zebiltzana, Carmen liburuzainak behinola eskuz idatzita utzi bezala.

«Diaz de Garaio, Juan (Sacamantecas) 5-3-4»

—Bost, hiru, lau? –galdetu zuen Adelak, bihotza taupaka.

—Bosgarren korridoreko hirugarren apalategiko laugarren apalean.

Hara abiatu ziren.

Liburuak adierazten zuen lekuan kartoizko karpeta arrunt bat aurkitu zuten, paper-sorta artean eta beste karpeta batzuen ondoan. Karpeta kolore hori argikoa zen, larua, eta goma gorri batek goi eta behe ixten zuen irekitzeko aldetik.

Cristina liburuzaina izan zen karpeta hartu zuena, baina berehala eman zion Adelari. Begietara begiratzen ziola mintzatu zitzaion:

—Eramazu zeure gelara nahi baduzu, Adela. Nahi duzun denbora guztian eduki dezakezu, lasai irakurri ahal izan dezazun.

—Mila esker, Cristina –irribarre egin zion Adelak hunkiturik, karpeta larua liburuzainaren eskuetatik hartu eta bihotzaren kontra jarri bitartean.

—Hori irakurtzeak zerbait argitzen lagunduko dizula uste duzu? –Cristinaren galdera, aurpegia serio.

—Baietz uste dut.

—Ez ahal dizu kalterik egingo! Zerbait gehiago behar baduzu, ez izan nigana etortzeko zalantzarik, entzun?

—Bai. Eskerrik asko, berriz ere.

Pozaren pozez, Adelak berriro estutu zuen Cristinaren eskua, liburutegitik irten aurretik. Apalategi artean bi orriko aterantz zebilen bitartean hegan zihoala iruditzen zitzaion. Ezin zuen sinetsi aita zenari buruzko artikuluak besoen eta bularraren artean estu-estu helduta zeramatzanik. Hainbeste aldiz ikusi zuen ametsetan bere burua horrela! Izan ere, zenbat aldiz egin ote zuen amets egun hartaz? Behin, karpeta aurkitu bai, baina hutsik zegoela egin zuen amets. Eta beste behin, sute ikaragarri batek jo eta liburutegia goitik behera kiskali zuela. Zorionez, ez gauza bat ez bestea ez zen gertatu. Eta orain, hamar urte baino gehiagoan zain egon ondoren, hantxe zeukan bilduma, zorioneko artikulu-bilduma.

Korridorean aurrera arin-arin zihoala, oroitu ere ez zen egiten negu hartako hotz ikaragarriaz. Bihotz-go-

goak bero-bero eginda zituen, umeek jostailu irrikatua amari hamaika aldiz eskatu eta, azkenean, lortzen dutenean izaten duten egoera berean. Bere gelarako bidean klaustrotik igaro bazen ere, ez zen konturatu txoriak otapurrak janda ote zeuden. Ogi arrastorik ia ez zegoen jadanik, klaustroko zutabeteriaren horma gainean.

Adela gogoberritua inorekin topo egin gabe heldu zen bere gelara. Haren barruan ez zegoen gauza askorik: ohe estua, armairutxoa, konketa eta paretako ispilua, mahai txikia leihoaren ondoan, eta aulki pobre ia zakar bat haren aurrean. Emakumea berehala jarri zen mahaian. Bertan zegoen biblia eskukatua alde batera baztertu zuen.

Karpeta polit-polita ikusten zen mahai pobrearen gainean, azalean Carmen zenaren katalogoko hitz berberak irakur zitezkeela. Nahi gabe ere, Adelak hainbat aldiz irakurri zituen hitz haiek, idazle batek idatzitako liburua lehen aldiz inprimaturik etxean jaso eta haren titulua behin eta berriz irakurtzen duen bezala.

Goma gorria atzera kendu zuen.

Bai, egunkarietatik guraizez moztutako artikulu mordoxka bat zen han barruan zegoena.

HIRU

Gasteiz ekialdeko Nafarroako bidea.
1871ko martxoa

ARRATSALDEA ZEN. ARRATSALDE EGUZKITSUA baina hotza, arrastiria gertu zela eta harekin batera hodei batzuk hurbiltzen zirela, martxoan askotan izaten den legez. Hamar bat egun besterik ez zen falta negua bukatzeko. Elurrik ez zegoen egun haietan, goizeko izotzak egunero-egunero inguruak elurra egin balu bezalaxe uzten bazituen ere.

Juan Diaz de Garaio, berrogeita bederatzi urteko gizon langilea, ohituta zegoen negurik gorrieneko hotzetan ibiltzen, halabeharrez ohituta, horretan ohitzerik baldin badago behintzat. Ipar-haizea –ipar beltza herritarren ahotan– bizarra mozteko modukoa zen, fin-fina, eta gizonak zamarra lodia eta panazko praka sendoak jantzi zituen. Buruan txapela, noski, eta lepoan lehenengo emazteak egindako artile lodizko lepokoa.

Ez zuen nahi inork ikusterik eta, horregatik, eskuak zamarraren poltsikoetan sartuta, Gasteiz inguratuz zihoan oinez urrats arinak eginez, kan-

poaldetik, ekialdetik zehatzago esanda. Nafarroako bidetik gertu zegoen Erregearen Atarira zihoan; hitzordua egin zuen emakume batekin, bertan arratsaldeko azken orduan elkartzeko, eguerdian harekin Aiztogile kalean topo egin zuenean hitz egin eta gero.

Erregearen Atarira heldu zenean, ez zuen inor ikusi.

—Kasuenzotz! –bota zuen haserre–. Non sartu ote da emakume hori? Ez ahal zuen azken momentuan atzera egingo, behintzat!

Pixka batean itxarotea erabaki zuen.

Ingurura lerratu zitzaion begirada. Gurdia eta idi parea han nonbait zebiltzan, urrun, zama-lanetan ziurrenik. Erretiratzen hasteko ordua zen, bada, hura artean han egoteko. Berandu zebilela zirudien. Hiri inguruan soroak ziren gehienbat ikusten zirenak, baina harizti bat ere ageri zen begien bistan, iparraldean. Haritzak biluzik zeuden. Biluzik eta dardaraka, haizeak jotzen zuen bakoitzean. Hiruzpalau belek hegaldi laburra egin zuten gizonaren ikusterrean. Haien kroa-kroa garratzak haizeak eraman zituen.

Halako batean hiri aldera begiratu, eta beroki beltzez jantzitako emakume bat hurbiltzen ikusi zuen. Juanek begiak zorroztu zituen bere buruari galdezka... bai, «Errioxarra» zen, berarekin elkartzekoa zen emakumea.

—Arratsalde on, Juan –agurtu zuen andreak apal, gizonari ondora heldu zitzaionean, begietara begiratzeko kemenik gabe–. Zerbait esateagatik diot hori,

hotz dago eta. Leku onen bat izango duzula espero dut. Aterpea behar dugu, derrigor.

—Ikusiko dugu, ikusiko dugu... –erantzun zuen Garaiok, ia ahapeka.

Emakumeari aurpegira begiratu zion. Antonia Sasiain izeneko andre alargunak «Errioxarra» ezizena zuen ama edo amona Errioxakoa izan omen zuelako. Gizonak, desegoki eta lizun, alarguna oraindik ere «errepaso on bat» egiteko modukoa zegoela pentsatu zuen.

—Zenbat urte dituzu, «Errioxarra»?

—Hara bestea! –andreak zakar, oraingoan bai, gizonari aurpegira begiratzen ziola–. Eta zuk? Zer esan behar didazu orain? Zaharra naizela? Hori ondo zenekien, hitzordua proposatu didazunean.

—Nire adinekoa-edo zarela egingo nuke.

—Ba! Eta zer? –onartu zuen Antoniak, gogogabeturik–. Nora joango gara? Goazen hemendik lehenbailehen. Hotzak akabatzen nago –eta sorbaldak astindu zituen.

Armategi Zaharreko bidetik joan ziren, Aranako bidea hasten zen lekuraino. Han harri hutsezko txabola bat zegoen, inguruko nekazariek lanabesak edo abereren bat bertan utzi beharra zutenerako eraikia. Handia ez bazen ere, lastategi txiki bat zeukan goialdean.

Txabolan sartu eta berehala, Garaiok lastategiko eskailera txikia zegoen aldera jo zuen, baina Sasiain andreak zamarratik heldu zion.

—Et, et, et! Eta hau zer? –galdetu zion, bi eskuez ordaintzeko keinua egiteaz batera.

—Ezin duzu itxaron, ala? –gizonak, desatsegin-keinuz–. Gero ere ordainduko dizut, emakume deabrua.

—Ezta pentsatu ere. Ez dago eskola handirik eduki beharrik, gizonak prakak erantzi aurretik eta prakak jantzi ondoren nola aldatzen zareten jakiteko.

—Tira, tira, ez gara eztabaidan hasiko. Tori bi erreal, eta goazen gora –Garaiok bi txanpon atera zituen poltsikotik, eta alargunari luzatu zizkion.

—Bi erreal? –kexatu zen Errioxarra, dirua hartu nahi izan gabe–. Zoratu egin zara, horregatik! Zuk zer uste duzu, nik ez dudala egunero jaten, ala?

—Kexu zara orain ere? –gizonak, zakar–. Seme-alabarik ez daukazu eta! Bakarrik bizi zara, eta behar duzun guztia daukazu. Zorionekoa zu! Jakingo bazenu zer infernu den nire bizitza!

—Hara, Juan –eskatu zuen emakumeak, gizonaren bular gainean esku bat jartzeaz batera, zintzotasun-keinu gisa–. Gutxienez bost erreal eman behar dizkidazu. Badakizu ni ez nabilela honetan bokazioz. Beste erremediorik ez daukat, eta horregatik nago hemen.

Garaiok bular barrenean haserrea eta sumina nahasirik handitzen zitzaizkiola sentitu zuen. Oihuka hitz egin zuen jarraian, Antonia errukarriari ikara handia eraginez; saltotxo bat egin zuen emakumeak, nahi gabe ere.

—Zergatik izan behar du guztiak beti zaila? –trumoia zirudien ahots amorratuak–. Oso erraza da ba: elkartu, hona etorri, txortan egin, ondo pasatu eta, erreal batzuk jasota, denok pozik etxera.

—Bost erreal, Juan, eta gutxi da hori ere.

Gizonak ezin izan zion bere buruari eutsi.

Lepokoa erantzi zuen eta, trebetasun handiz, Errioxarraren lepo inguruan jarri zuen, hura ia ohartu ere egin gabe.

Indarrez estutzen ari zela, emakumearen aurpegian oraindik itxi gabe zegoen atetik sartzen zen eguzki ahularen argitasun gorria ikusi zuen Garaiok. Neguko eguzkia, hilketaren lekuko izan nahi balu bezala, zeruko hodei artetik azaldu zen, urrutiko mendien atzean ezkutatzeko oso gutxi falta zitzaiola.

Valdegoviesa zenaz oroitzen zela, gizonak lepokoa estutu eta estutu egin zuen, harekin batera andrearen lepoa gaiztoki galkatzen zuela.

Errioxarrak gizonaren besoetan jarri zituen eskuak. Pago-motzaren adar lodiak baino gogorragoak iruditu zitzaizkion bi besoak. Aurpegia eguzkirik gabe ere gorri-gorri, belauniko erori zen. Juan berdin, haren atzetik. Biktima erdi itota zeukala iritzi zionean, lepokoa pixka bat laxatu eta eskuak gerrikora zuzendu zituen, prakak beheratzeko. Gizonaren zakila tente azaldu zen, taupaka harro, Errekatxiki ondoan Valdegoviesa bortxatu zuenean bezala. Horrek atsegin ulergaitza sentiarazi zion bortxatzaileari.

Beroki beltz zaharra eta zikina di-da ireki zuen, botoiren bat apurtuz. Soinekoa ere bular aldetik beheraino urratu zion Antonia errukarriari. Dena zen arnasots, hasperen etsigarri eta negar-zotin. Garaiok basati hartu zuen Errioxarra, haserre eta pozik aldi berean.

—Ikusten zer erraza den, Antonia? –galdetu zuen, ahoan lerdea sortzen sentitzen zuela–. Hauxe da dena, besterik ez!

Emakumeak, erdi zorabiaturik, ez zuen ezer sentitzen. Arnasa hartzea zen haren zereginik beharrezkoena. Eta zailena. Garaio bere gainean bazeukan ere, haren aurpegiko bizar motz latza masailean igurtzika bazeukan ere, gizona urrun balego bezala ikusten zuen; urrun eta Antonia bera ez zen norbaiti zerbait txarra eta adierazkaitza egiten.

Begiak itxi zituen, noizbait berriro hilduraz irekitzeko.

Ikusmena eta entzumena nahasirik, gizona hartza iruditu zitzaion, halako hots arraroak egiten zituen haragikerian zebilela. Gero berriro itxi zitzaizkion begiak. Belarriak, nahita ere ezingo zitzaizkion itxi.

Garaiok noizbait bukatu zuen bere zeregina. Mozkor antzera zutitu zen. Oso baldar lotu zituen prakak.

Kanpoan eguzkia mendiez bestaldean desagertua zen. Lurrean zetzan emakumearen ondoan belaunikatu zen gizona. Neguan zamarran eta udan praketan, beti aldean zeraman labana atera zuen. Antoniaren biluztasun zurbilari begira pixka batean egon eta haren bularrak esku latzez zakar ferekatu ondoren, haren gorputza sastakatu zuen, behin eta berriz. Antoniak alfer-alferrik mugitu zituen besoak, sastakadak galarazteko ahalegin ahulean. Gero, labana lurrean utzi eta emakumeak artean lepoaren inguruan zeukan lepokoari berriro helduta, behin betiko ito zuen Errioxarra dohakabea.

—Zeuk zaildu dituzu gauzak, Antonia –esan zion emakumeari, jadanik hilotz zenean–. Zeuk zaildu duzu oso erraza zena.

Berriro zutik, zamarra ahal bezala botoitu zuen.

Hildakoari damu zantzurik batere gabe begiratu ondoren, labana lurretik jaso, haren arropetan garbitu eta berriz ere poltsikoan gorde zuen. Ondoren, txabolatik irten zen atea itxi eta gero.

Hilotza artzain batek aurkitu zuen biharamunean, txabolara hanka hautsita zeukan ardi bat eraman zuenean.

Antonia Sasiain andrearen gorpua ahoz gora zegoen, Garaiok bezperan utzi bezalaxe, aurpegia handiturik, zauriz beteta eta odoleztaturik. Lepoa laztuta zeukan, gauza zakarren batekin igurtzi balute bezala.

Kasu hura ere, aurrekoa bezala ezeren frogarik gabe, ahaztuta geratu zen laster.